

SANTA EULALIA

— ARABA / ÁLAVA —

Santa Eulalia Kuartango haranaren mendebaldean dago, Basabe haranean, eta Vadillo ibaiak zeharkatzen du. Kuartangoren komunikazioetan ardatza eta giltzarria zen gune hori, Arriano herritik Baia ibaira, Arkamu eta Gibijo mendilerroen artean. Herria Marindako muga barruan dago, Beheko mugaren barruan, Goiko edo Lunako mugatik bereizita, azken hori Gibijo mendilerroaren barruan. Muga horiek haien mendeko basoak kontserbatu eta ustiatzeaz arduratzentziren, basogintzari zein abeltzaintzari zegokienez. Herria itsasoaren mailaren gainetik 666 m-ko altitudean dago, Kuartango udalerriari dagokio, Añana kuadrillaren barruan, eta Gasteizetik 27 km-ra dago, gutxi gorabehera.

Jerónimo Aznar gotzainaren idatzian, 1257. urtean, *Sca Olalia* izenarekin ageri da, hamarrenak Kalagorriko kabiloari ematen zizkiolako. Kuartangoko artzapez-barrutiaren barruan sartzen zen. Gil lizentziatuaren arabera, 1556an, parrokian bi onuradun zeuden lanaldi osoan, eta Done Miliani eskainitako baseliza bat zegoen, gaur egun desagertuta dagoena. Hala ere, "Fuente de San Millán" toponimoa kontserbatzen da, herritik kilómetro batera, elizaren hego-mendebaldean.

Santa Eulalia se encuentra en la zona occidental del valle de Kuartango, en el llamado valle de Basabe, surcado por el río Vadillo, eje poblacional y clave en las comunicaciones de Kuartango desde la localidad de Arriano al río Baias, entre las sierras de Arkamo y Gibijo. El lugar se sitúa en la Ledanía de Marinda, llamada también Ledanía de Abajo, diferenciándola de la Ledanía de Arriba o Ledanía de Luna, más adentrada en la sierra de Gibijo. Estas Ledanías eran comunidades encargadas de la conservación y explotación de los montes que les pertenecían, en su doble vertiente: forestal y ganadera. La localidad alcanza una altitud media sobre el nivel del mar de 666 m, pertenece al municipio de Kuartango, cuadrilla de Añana, y se encuentra a una distancia aproximada de 27 km de Vitoria-Gasteiz.

En la concordia del obispo Jerónimo Aznar, fachada en el año 1257, aparece con el nombre de *Sca Olalia*, por su aportación de los cuartos decimales al Cabildo de Calahorra, incluyéndose dentro del Arciprestazgo de Kuartango. El licenciado Gil dice, en 1556, que servían a la parroquia dos beneficiados de ración entera, y tomó razón de la existencia de una ermita dedicada a San Millán, hoy desaparecida. Se conserva, no obstante, el topónimo "Fuente de San Millán" situado aproximadamente a un kilómetro del pueblo, al suroeste de la iglesia.

Santa Eulalia Meridakoa eliza Iglesia de Santa Eulalia de Mérida

SANTA EULALIAKO etxeak bi nukleoetan kokatzen dira, altitude desberdinan, bereizita baina elkarrengandik hurbil. Biztanle gehien dituen nukleo edo auzoa altitude txikian dago, Vadillo ibaiaren ondoan, eta bertan goiko auzora doan bidea hasten da. Goiko auzoan dago Santa Eulalia eliza.


Tenpluak Erdi Aroko eskema kontserbatzen du. Aldi barrokoan berreraiki zuten; XVIII. Mendean, ziurrenik. Eraikin simplea da, harlangaitzez egindakoa. Burualde laua eta nabe bakarra du, bi tartetan bereizita. Hegaoaldean, kanpoaldetik, Erdi Aroko zenbait harburu ikusten dira,

EL CASERÍO existente en Santa Eulalia se presenta en dos núcleos situados a distinta altitud, separados pero próximos entre sí. El núcleo o barrio más habitado es el ubicado a menor altitud, junto al río Vadillo, y desde él sube el camino que conduce al barrio alto, donde se encuentra la iglesia parroquial de Santa Eulalia.

El templo, que conserva el esquema medieval, fue reconstruido en época barroca, probablemente en el siglo XVIII. Es un sencillo edificio, levantado en mampostería, formado por cabecera plana y nave única dividida en dos tramos. En el costado sur son visibles, desde el exterior, varios canes me-



Portada / Portada



Bataiarria / Pila bautismal

ahurrak eta apaíndurarik gabeak, jatorrizko elizaren altuer-a erakusten dutenak. Erdi Aroko portada du, arku zorrotz eta ertz biziko hiru arkiboltarekin. Arkua inposta alakatu eta lisoen gainean zurkaiztuta dago, eta horien ondoren janbak daude, arkibolten moduan, ertzak dituzte, baina ez dute eta apaíndurarik. Portada horren gainean, testuinguru-tik kanpo eta horman sartuta, maskaroi erromaniko bat dago aurrez aurre, begi handi biribilekin eta hortz nabar-menekin, eta ahoaren bi aldeetatik belarrietaraino bi suge ateratzen zaizkio. Giza aurpegi grotesko eta fantastiko horrek Jokanoko eta Uribarri Kuartangoko portadetako bi kapitelen antza du. Hori dela eta, baliteke tenpluko jatorr-iko portada osatzen zuen kapitela izatea.

Elizaren barrualdean bataiarri originala dago. Kopa handia da, eta apaíndura asko du, lau zerrendatan antolatuta, motibo geométrico eta vegetalekin. Goiko zerrenda motibo trifoliatuz dago apaínduta. Lirioak, hostoak, foliolos eta, gainera, motibo horietako batzuk arku trilobula-tuetan daude inskribatuta. Hori dela bide, Garbiñe Bilbao-en hitzen arabera, baliteke multzoak Hirutasun Santuari aipamen egitea. Bigarren eta hirugarren zerrendetan, lerro lisoen artean, errosetak agerti dira botoiekin erdialdean, kuadrifolioak eta lore handiak. Barrualdeko zerrenda erdi

dievales, cóncavos y sin decorar, que señalan la altura de la primitiva iglesia. Mantiene también una portada medieval, de arco apuntado con tres arquivoltas de arista viva. El apeo del arco se efectúa sobre impostas, biseladas y lisas, que dan paso a jambas que, como las arquivoltas, son también aristadas y sin decorar. Sobre esta portada se encuentra, descontextualizado y embutido en el muro, un mascarón románico muy frontal, de grandes ojos redondos, marcados dientes, y dos serpientes que surgen a ambos lados de la boca y le llegan a los oídos. Este rostro humano, grotesco y fantástico, guarda similitud con dos capiteles de las portadas de Jokano y Uribarri Kuartango, por lo que tal vez pudiera tratarse de un capitel que formara parte de la primitiva portada del templo.

La iglesia acoge en su interior una original pila bautismal. La copa, de grandes dimensiones, se presenta totalmente colmada de decoración, dispuesta en cuatro bandas, con motivos geométricos y vegetales. La franja superior se ornamenta con motivos trifoliados. Lises, hojas, foliolos y, además, parte de estos motivos, se encuentran inscritos en arcos trilobulados, con lo que, según indica Garbiñe Bilbao, el conjunto pudiera ser alusivo a la Santísima Trinidad. Las bandas segunda y tercera muestran, entre fajas lisas, rosetas con botones al centro, cuadrifolios y florones.

Santa María
la Real fundación



puntuko arku lotuz dago apainduta, arkuen itxuran, eta motibo begetalak ditu. Kopa nukleo zilindrikoan oinarritzen da, baketoi indibidualekin atxikitako zortzi zutabe erdirekin, kapitelen eta harroinen itxuran. Aurreko bi zutaben gainean giza aurpegi bizarduna dago, almendra itxurako begiekin eta ezaugarri atseginaak eta ondo zehaztuak ditu. Aurpegi horrek txano moduko bat du, eta bekokiaren erdialdean kopeta-ilea ikusten da.

Harroinak bi gorputz ditu, eta kopa bezala dago apainduta. Goikoa zirkularra da eta koparen barruko zerradaren apainduraren antzekoa du: erdi puntuko arkuen segida, motibo begetalak estaltzen. Harroinaren beheko gorputz poligonal oktagonalak hosto mamitsuak ditu, foliolos pitxatuekin. Micaela Portillak, motibo begetal horien tratamendu formalaren errealsismoa oinarri hartuta, bataiarri hori XIII. mendeko azken hamarkadetan kokatzen du. Garbiñe Bilbaok motibo begetalen sinbolismo sakona azpimarratzen du, eta Bizitzaren zuhaitz hostotsu bat irudikatuta dagoela adierazten du. Zuhaitz horren adaburuua, enborra eta zuhaitzaren sustraiak hartzan dituen muino itxurakoa argi ikusten dira.

Testua eta argazkiak: MPG

La franja inferior se decora con arcos de medio punto unidos, a modo de arquería, que albergan motivos vegetales. La copa descansa en un núcleo cilíndrico, con ocho medias columnas adosadas con baquetones individuales, a modo de capiteles y basas. A las dos columnas frontales se superpone un rostro humano barbado, de ojos almenados y rasgos agradables y bien definidos. El contorno de este rostro presenta una especie de capuchón que deja asomar el flequillo en la parte central de la frente.

La basa, decorada con la misma profusión que la copa, consta de dos cuerpos. El superior, circular, presenta una decoración similar a la franja inferior de la copa: una sucesión de arcos de medio punto que cobijan motivos vegetales. El cuerpo inferior de la basa, poligonal octogonal, muestra una serie de hojas muy carnosas, con foliolos hendidos. Micaela Portilla, basándose en el realismo del tratamiento formal de estos motivos vegetales, fecha esta pila bautismal en las décadas finales del siglo XIII. Garbiñe Bilbao, por su parte, señala el profundo simbolismo de los motivos vegetales e indica la representación de un frondoso árbol de la Vida, en el que se pueden distinguir con claridad la copa, el tronco y esa especie de montículo –la basa– en el que el árbol hunde sus raíces.

Texto y fotos: MPG

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, pp. 53-55, 130; LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 64-67; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 260; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1995, pp. 771-773, fig. 445-446.